



Sagardoetxea
herri baten erroak

SAGARDOETXEA, EUSKAL SAGARDOAREN MUSEOA

Hezkuntza Programa 2013

Kontaktua

Leire ALKORTA
Telf.: 943550575
prentsa@sagardoetxea.com

SAGARDOETXEA, EUSKAL SAGARDOAREN MUSEOA



txotx.info

 Sagardoetxea

Sagardobenda

 SagardoPedia

 SAGARDUN
SAGARDOAREN MUSEOA

SAGARDOETXEA, SAGARDOAREN MUSEOA. Hezkuntza programa 2013.

Sagardoetxea sagarra, sagarrondo eta sagardoaren kultura zabaltzeko museo gune bat da. Museoen kontzeptu tradizionaletik desberdina da, sagarrondoan bizitza eta sagardoaren elaborazio prozesua modu aktiboan ezagutzeko aukera ematen duen leku dinamikoa baita, gauzak ikusiz, jardueretan parte hartuz eta produktu ezberdinak dastatuz.

Sagardoetxeak museoko **sagastira** eta **museo-gunera** bisitaldi gidatuak eskaintzen dizkie ikasleei.

Museoko **sagastian** sagardo egileen teknika eta sekretuak aurkituko dituzte eta sagarrondo, hazitegi, sagar mota desberdin eta aintzinako tolare baten bueltan ibiliko dira. **Museo-gunean**, berriz, sagarra eta sagardoaren historia, usadioaren jatorria, erramintak eta elaborazio prozesua aurkituko dituzte, sagardoaren kulturara gerturatuz.




Ikasleen adinaren arabera (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza), bisitaldiaren **edukiak egokitzen** dira eta eduki horiek lantzeko **material didaktiko** ezberdina erabiltzen da. Bestalde, 18 urtetik gorako ikasleek, aipaturiko bisitaldiaz gain **txotx-eko errituaren hastapena** eta sagarretik eratorritako produktuen **dastaketa** egiteko aukera dute.

Bestalde, eta museoko **edukiak modu ludikoagoan** lantzeko, Sagardoetxean joko ezberdinak garatu ditugu: "Sagardogileak aurrera" oka joko ibiltaria eta "Bailearen harrapaketa" joko.

MATERIAL DIDAKTIKOA

1. **Urtaroko laborategia:** joko, puzzle, irudi, analisi, etb... en bidez urtaro bakoitzean jarduera ezberdinak lantzeko.



2. **Muztioa egiteko tresneria:** Ikasleek udazkenean sagardoaren elaborazio prozesu osoa egiteko tresneria daukate: kizkiak, pisoiak, matxaka eta prentsa. Guzti honekin, sagardoaren elaborazio prozesua ezagutzeko eta beraiek ekoizturiko muztioa dastatzeko aukera izango dute.

3. **Sagardoaren Hiztegia:** Sagardogintzaren inguruko 500 hitz biltzen ditu. Hiztegi honi esker, ikasgelan ikasitako hitz berriak lantzeko aukera izango dute, besteak beste: kizkia, patsa, kirikoketa, etb...

SAGARDOETXEA, SAGARDOAREN MUSEOA.

Hezkuntza programa 2013.

4. **Sagarrekin Jolasean:** Sagarraren kulturaren inguruko bost liburuxka dira, adin-tarte bakoitzera egokituak: Haur Hezkuntza (3, 4, 5 urte), Lehen Hezkuntza (LH1, 2, 3, 4, 5, 6) eta Bigarren Hezkuntza (DBH 1, 2, 3, 4).



5. **“Sagardogileak aurrera” oka jokua eta “Bailearen harrapaketa” jokoa:** Oka-jokoan galderak asmatu eta froga ezberdinak egin beharko dituzte bisitaldian ikasitako edukiak lantzeko eta “Bailearen harrapaketa” jokoa, garai batean marinelek Ternuara egiten zituzten itsas bidaietan murgilduko dira joko ezberdinen bidez.

6. **Multimedia gida:** Sagardoetxeako edukiak modu interaktiboan lantzeko aukera ematen duen gida.

7. **Artxiboa:** Sagardoetxea fondoa osatzen duten pieza guztien artxiboa. Bertan euskal sagardogintzako, liburuak, dokumentuak... kontsulta daitezke.

JARDUERAK

Sagardoetxeak urte guztian zehar museora gerturatzen diren ikasleei sagastiko eta interpretazio zentroko **bisita gidatuak** eskaintzen dizkie. **Sagastian** sagar barietate ezberdinak, gidatze sistemak, fauna eta flora, kizkiarekin sagarrak jaso, aintzinako prentsa zaharrean sagarrak jo, etb... egiteko aukera izango dute. **Interpretazio zentruan** berriz, sagar eta sagardoaren historia, kultura, festak, ohiturak eta sagardoaren prozesua ikusi eta ikasteko aukera izango dute. Gainera, **urtaro ezberdinak** landuko dira, garaian garaiko jarduerak eginaz.

1) SAGASTIAK LORETAN

Nori zuzendua: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza.

Noiz: Udaberrian.

Iraupena: Ordu bat.

Bisitaren deskribapena: Bisita orokorraz gain, **polinizazioa**, **sagarraren izurrite eta gaitzak** eta **dastaketa** landuko dira.

Polinizazioa gaitzat hartuta, erleen bizimodua, polinizazioak fruta arboletan duen garrantzia eta loreen zatiak landuko dira. Sagarrondoak loretan daudenean loreen zatiak ikusi, aztertu eta loreen zatiak ikutzeko aukera eskainiko dute.

Bestalde, urtaro honetan hain kaltegarriak diren izurrite eta gaitzak aztertuko dira.

Dastaketa egiteko garaian, erleen lana hain garrantzitsua izanik, lore polena eta ezta dastatuko dira. Honekin batera beste zentzumenak ere martxan jarriko dira: usaimena, ukimena eta ikusmena.



SAGARDOETXEA, SAGARDOAREN MUSEOA.

Hezkuntza programa 2013.

2) SAGARRAK ZUHAITZETAN

Nori zuzendua: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza.

Noiz: Udaran.

Iraupena: Ordu bat.

Bisitaren deskribapena: Bisita orokorraz gain, **inausketa** eta **dastaketa** landuko dira.

Sagarrondoen egoerak, zuhaitzen gidatze sistemak zein diren eta nola egiten diren landuko da:

- Inausketa berdea.
- Udarako txertaketa.
- Ilargiaren eragina: goranzko ilargia eta beheranzko ilargia.

Dastaketa egiteko garaian, lore polena eta eztia dastatuko dira. Honekin batera beste zentzumenak ere martxan jarriko dira: usaimena, ukimena eta ikusmena.



3) SAGARREN BILKETA

Nori zuzendua: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza.

Noiz: Udazkenean.

Iraupena: Ordu bat eta 30 min.

Bisitaren deskribapena: Bisita orokorraz gain, **muztioaren elaborazio prozesua** eta **dastaketa** landuko dira.



Udazkenean sagarrondoen hostoak erortzearekin bat, sagarrak erortzen hasten dira eta elaborazio prozesuari hasiera ematen zaio.

Honako jarduerak landuko dira:

- Sagarrak bildu kizkiarekin.
- Sagarrak dastatu.
- Sagarren heldutasunaren neurketa: almidoiaren eta Brixº azterketa.
- Sagarra jo pisei eta matxakarekin.
- Sagarra prentsatu.
- Sagar muztioaren analisiak eta neurketak egin: dentsitatea, legamiak, bakteriak, etb...



Dastaketa egiteko garaian, sagar barietate ezberdinak eta ekoizturiko sagar muztioa dastatuko dira. Honekin batera beste zentzumenak ere martxan jarriko dira: usaimena, ukimena eta ikusmena.

SAGARDOETXEA, SAGARDOAREN MUSEOA.

Hezkuntza programa 2013.

4) LANDAKETA GARAIA

Nori zuzendua: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza.

Noiz: Neguan.

Iraupena: Ordu bat.

Bisitaren deskribapena: Bisita orokorraz gain, **sagar haziak erein** eta **txertaketak** landuko dira.



Neguan ikasleek Sagardoetxeako haztegian beren sagar haziak ereiteko aukera izango dute. Bestalde, landaketa teknika ezberdinak eta patroiz ezberdinak ezagutuko dituzte.

Txertaketak egiteko sasoia izanik, txertaketen zergatia eta teknika ezberdinak ere ezagutuko dituzte: ezpala, txapa, ingelesa, omega, zubierakoa, arrakala, azalekoa, zubierakoa eta albokoa.

5) DASTI IPUINKONTALARIA

Nori zuzendua: Haur Hezkuntza.

Noiz: Urte osoan zehar

Iraupena: Ordu bat.

Bisitaren deskribapena: Sagardoetxeako bisita **ipuin moduan** egingo da.

Sagastia eta interpretazio zentroa bisitatuko dira Dasti, Sagardoetxeako pertsonaia bidelagun dutela. Bisita honetan edukiak modu ludikoan eta hezigarrian landuko dira, txikiak museoan edukiak modu errazean barneratzeko.

6) SANTIAGOMENDIKO SAGARDO BIDEA

Nori zuzendua: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza.

Noiz: Urte osoan zehar

Iraupena: 5-6 ordu.

Bisitaren deskribapena: Sagardoa ekoizten zuten tolare baserrietan zeharko **ibilaldi tematikoa** da eta Sagardoetxeako bisitaldiaren **osagarria** izan daiteke. Bisita norbere kabuz edo Sagardoetxeako gida baten gidaritzapean egiteko aukera dago.

Sagardoaren kulturaren bitartez, Santiagomendiko baserrien eta Astigarragako historia harrigarria, bertako biztanleen bizimodua eta Santiago Bidearen Gipuzkoan zeharko punturik adierazgarrienetarikoa ezagutzen da.

Ibilbidean zehar 8 geldialdi tematiko daude eta azalpen panelak, multimediazko elementuak, joko interaktiboak eta asmakizunak topa daitezke.



SAGARDOETXEA, SAGARDOAREN MUSEOA.

Hezkuntza programa 2013.

INGURUKO BALIABIDEAK:

Astigarragak baditu egun pasa osatzeko zenbait gune: pilotaleku estalia, igerilekua, aire librean bazkaltzeko guneak, Santiagomendi, Santiagomendiko Natur Eskola, Murgiatarren jauregia, Eliza, Norberto Almandoz musikaria, Herriko Plaza, Udaletxea...

TARIFAK:

Sagardoetxeako bisita gidatua..... 2 euro ikasle bakoitzeko
 (Jarduerak: Sagastiak Loretan, Sagarrak zuhaitzetan, Sagarren bilketa, Lankatea garaia eta Dasti ipuinkontalaria)

Dastaketa gidatua..... 1,50 euro ikasle bakoitzeko
 (Adinez nagusiak diren ikasleentzako bakarrik)

Santiagomendiko Sagardo Bidea

Ibilbidea norbere kabuz egitea Dohakoa
 Sagardoetxeako gida batekin ibilbidearen bisita gidatua egitea 25euro ordua
 (Kasu honetan asmakizun txartela izango lukete)

Multimedia gidaren alokairua Kontsultatu



Oharrak:

- Prezio hauen barruan BEZ-a sartuta dago.
- Irakasleek doako sarrera dute Sagardoetxean.
- Tarifa hauek taldeentzako bakarrik dira (gutxienez 15 laguneko taldeak).
- Sagardoetxeako jarduera guztiak gida batek zuzenduko ditu.